berriak
Triforio -tik

102. Zkia.
2022ko otsaila

araba álava

Erresilientziak eta egokitzapenak definitzen dute 2021eko bisiten balantzea

Santa Maria Katedrala Fundazioak, egokitzeko duen gaitasunari esker, bere jarduera turistiko eta dibulgatzaile gehienari eustea lortu zuen 2021ean –osasun-krisiak eragindako zailtasunak eta mugak gorabehera–. Bisita libreak bezalako berrikuntzak martxan jartzeak eta taldeak unean-unean indarrean dauden beharretara egokitzeak 75.482 bisita izatea ahalbidetu dute, 2020an 33.631 izan ziren bitartean.




Bisitari kopurua oraindik pandemiaren aurreko mailara iristen ez den arren (2019an 100.000 bisitari inguru izan ziren), joerak susperraldi nabarmena erakusten du. Murrizketek une desberdinetan izan duten inpaktuak markatutako urte honetan, bisita kopuru handiena abuztuan zenbatu zen, bai eta urriko, azaroko eta abenduko zubi eta jaiegunetan ere.

Bisitarien jatorriari dagokionez, Autonomia Erkidego igorle nagusiak Madril, Euskadi, Katalunia, Valentzia eta Andaluzia izan ziren, garrantziaren arabera ordenatuta. Atzerritik, Frantzia, Italia eta Alemania nabarmendu ziren berriro. Jardueren eskaintzari dagokionez, bisitariek gehien eskatu duten bisita Katedrala Dorrearekin izan da berriro ere, eta aukera izar moduan finkatu da, Errealitate Birtualeko Esperientzia bezalako aukera berrien erakargarritasuna ahaztu gabe.



Katedrala, **balio segurua Fitur Azokan**



Santa Maria Katedralak erreferentziazko lekua hartu zuen berriro Euskadik urtarrilaren amaieran Madrilen egin zen Fitur-Nazioarteko Turismo Azokara eraman zuen eskaintzan. Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren eskutik, euskal standean, kultura, natura, kirola, gastronomia edo ondarea bezalako arloetan lurraldeak duen eskaintza turistiko zabal eta anitzari eskainitako aurkezpen berezia egin zen. Horrela, Cristina González bigarren ahaldun nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneko foru diputatuak Arabako ondarearen ikonoetako bat Santa Maria Katedrala eta bere bisita-programa saritua dela adierazi zuen.

Karezko morteroak eta ondarearen zaharberritzea

Eraikuntzaren arloan aurretik erabilitako materialen desberdinak diren ezaugarriak dituzten produktu berriak erabiltzea ez da beti soluzio ona izan eraikin historikoak birgaitzeko. Adibide bat, XX. mendean morteroetan karearen ordezko gisa erabili zen zementua da.


Mortero hitza entzuten dugunean Portland zementua, jende askorentzat existitzen den bakarra, datorkigu burura. Izan ere, XX. mendeko lehen urteetatik eraikuntzaren arlo guztietan erabili zen. Bere propietateak iraultzaileak ziren bere garairako, denbora gutxian erresistentzia handia lortzen zuelako.


Denborak aurrera egin ahala, zementu hori eraikin historikoetarako ez dela egokia egiaztatu ahal izan zen; batetik, zaharberritutako ondarea hondatzen duten gatzak dituelako, eta, bestetik, erresistentzia handia duelako, paradoxikoa dirudien arren. Zaharberritzeko oinarrizko irizpidea, iraunkortasuna da, erresistentziaren aurrean, eta, ondorioz, material berrien eta historikoen arteko bateragarritasuna. Mortero berriak jatorrizkoa baino deformagarriagoa izan beharko du gehiegizko esfortzurik ez transmititzeko.

Katedrala, zaharberritze lanetan aitzindari

Duela gutxi, Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko Zerbitzuak Arabako Ondare Historiko-Arkitektonikoari buruzko eskuhartzeen Jardunbide Egokien bilduma argitaratu du. Materialen atalean karezko morteroen gaia garatzen da, mortero horiek baitira egokienak ondarea zaharberritzeko.

Santa Maria Katedrala aitzindaria izan da kare-morteroekin zaharberritzen, eta zaharberritze lanetan erabilitako mortero horiek bete behar dituzten zehaztapenei buruzko ikerketa egin zuen. Ikerketa hori AFAren Laborategi Orokorreko Zerbitzuarekin lankidetzan egin da, eta Katedralaren webgunean dago eskuragarri. Horrez gain, hemen deskarga daiteke: https://labur.eus/MorteroCal. Otsailean zehar, bazkideek argitalpen inprimatua doan eska dezakete 945 255135 telefono zenbakian.





Gehiago jakiteko:

Arabako Ondare Historiko Arkitektonikoaren gaineko esku hartzeen jardunbide egokien laburpena. (Arabako Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzua).

La inyección de cales en la consolidación de fábricas. Investigación aplicada (Santa Maria Katedrala Fundazioa). Tenpluaren egiturazko finkapen prozesuan egindako ikerketa jasotzen duen argitalpen teknikoa.